

## DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN KONTRATAZIOKO BARNE JARRAIBIDEAK

<b>A.</b>	<b>APLIKAZIOKO KONTRATAZIO ESPARRUA</b>	<b>3</b>
<b>B.</b>	<b>ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN MENDE EZ DAUDEN KONTRATUAK</b>	<b>4</b>
I.	<u>Oro har aplikatzekoak diren arauak</u>	5
1.	KONTRATAZIO ORGANOA	5
2.	KONTRATISTEK BETE BEHARREKO BETEKIZUNAK	5
3.	KONTRATUAREN ELEMENTUAK	6
4.	KONTRATUA PRESTATZEA	7
5.	KONTRATUA EGITEA	8
6.	KONTRATUA GAUZATZEA	8
II.	<u>Plegua</u>	8
III.	<u>Esleitzeko prozedurak</u>	11
1.	OBRA KONTRATUAK	11
2.	GAINERAKO KONTRATUAK (HORNIDURA, ZERBITZUAK ETA BESTELAKOAK)	16
IV.	<u>Errekurtsoak</u>	21
<b>C.</b>	<b>ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN MENDE DAUDEN KONTRATUAK</b>	<b>21</b>
I.	<u>Oro har aplikatzekoak diren arauak</u>	21
1.	KONTRATISTEK BETE BEHARREKO BETEKIZUNEI DAGOZKIEN BEREZITASUNAK	22
2.	KONTRATUA PRESTATZEA	22
3.	KONTRATUA BURUTU ETA FORMALIZATZEA	22
II.	<u>Plegua</u>	23
III.	<u>Esleitzeko prozedura</u>	23
IV.	<u>Errekurtsoak</u>	24
1.	PRESTAKETA ETA ESLEIPENA	24
2.	ERAGINAK ETA AMAIERA	25
V.	<u>Ofiziozko berrikuspena</u>	25

<b>D. KONTRATATZAILEAREN PROFILA</b>	26
<b>I. ERANSKINA</b>	27
<b>II. ERANSKINA</b>	30
<b>III. ERANSKINA</b>	31

## DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN KONTRATAZIOKO BARNE JARRAIBIDEAK

### A. APLIKAZIOKO KONTRATAZIO ESPARRUA

DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA (aurrerantzean EEP) toki-erakunde publikoa da eta horren kapital guztia Donostiako Udalarena da.

Kultura- eta jaialdi-arloko udal-eskumenak zuzenean eta modu deszentralizatuan gauzatera bideratzen du bere jardura. Hain zuzen ere, Donostiako Udalaren eskumenekoa den kultura-eremuaren plangintza, eraikuntza eta kudeaketa dira bere eskumenak, baita jai-jardueren sustapena eta antolaketa ere. Zehazki, honako helburu hauek ditu:

- a) Kultura- eta jai-arloko premiez arduratzea, donostiarren nortasun-adierazpena diren aldetik: horretarako, arreta berezia emango dio bertako kulturari, bere adierazpen guztietan; hain zuzen ere, bertako kultura garatu eta sustatzeaz gain, horri buruzko ikerketa eta jakintza ere izango ditu jomugan.
- b) Ekimen zibiko eta herritarrenaren euskarri izatea.
- c) Irabazi-asmorik gabeko kultura-sektoreen jarduerak bultzatzea eta diziplina arteko elkarriketa sustatzea.
- d) Hirian garatzen diren kultura-, jai- eta aisialdi-jarduerak sustatzea.
- e) Kultura-arloko sorkuntza edo produkziarako laguntza ematea.
- f) Donostiarren kultura-prestakuntzarako laguntza ematea.
- g) Ondare artistiko, zientifiko, teknologiko, natural eta dokumentala sortu, kudeatu eta irauaraztea
- h) Hirian kultura-industrien eta kultura-erabilerako ekipamenduen presentzia sustatzea.
- i) Beste Administrazioen titulartasuneko edo udalerriko titulartasun partekatuko azpiegitura handiak bultzatzen parte hartzea.
- j) Kultura-jardura orok duen giza kolektiboaren kohesio-faktorea erraztea.
- k) Bereziki hizkuntza-helburuak lortzen laguntzea, biztanleria elebiduna kontuan izanik.
- l) Kulturaren ikuskera sortzaile, ireki, plural eta tolerantea sustatzea.

Sektore Publikoko Kontratu Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen ondorioetarako (aurrerantzean SPKLTB), EEP “**sektore publikoaren**” zati da (Lege horren 3.1.c artikuluan aurreikusitakoaren arabera) eta Administrazio publikoa ez den arren, “**botere esleitzaitzat**” hartzeko Lege horretan aurreikusitako ezaugarriak ditu (Lege horren 3.3 artikulua), eta, horren ondorioz, **SPKLTBn horretarako ezarritako aginduak aplikatu** behar zaizkio.

EEPk egiten dituen kontratuak **kontratu pribatuak** dira.

EEPk egiten dituen kontratuak honako kategoría hauetan sailkatzen dira:

1. **Legearen eraginpekoak ez diren kontratuak**, eta, beraz, ordenamendu juridiko pribatuaren, edo, hala badagokio, aplikatzekoak zaizkion arau berezien eraginpekoak direnak. SPKLTBren 4. artikuluan deskribatutako kontratuak dira (artikulu hori I. Eranskin gisa atxiki zaie jarraibide hauei). **Jarraibide hauek ez zaizkio aplikatu behar.**
2. **Legearen eraginpeko kontratuak, erregulazio harmonizatukoak ez direnak.** Kontratu guztiak dira, hurrengo kategoriakoak izan ezik. **Jarraibide hauen B idatz-zatian** aurreikusitakoa aplikatu behar zaie.
3. **Legearen eraginpeko kontratuak, erregulazio harmonizatukoak direnak. Jarraibide hauen C idatz-zatian** aurreikusitakoa aplikatu behar zaie. Honako kontratu hauek dira:
  - 5.000.000 euro edo gehiagoko balio zenbatetsia duten obra-kontratuak<sup>1</sup>.
  - 200.000 euro edo gehiagoko balio zenbatetsia duten hornidura-kontratuak<sup>1</sup>.
  - SPKLTBren II. Eranskineko 1. kategoriatik 16. kategoriara bitartean bildutako eta 200.000 euro edo gehiagoko balio zenbatetsia duten zerbitzu-kontratuak<sup>1</sup>.

Zenbateko horiek guztiak BEZik gabeak dira.

SPKLTBren 13.2 artikuluan (jarraibide hauei II. Eranskin gisa atxiki zaie) deskribatutako kontratuak ez dira inoiz erregulazio harmonizatuaren mendekoak, edozein zenbatekoa dutela ere, ezta SPKLTBren II. Eranskineko 17. kategoriatik 27. kategoriara bitartean bildutakoak ere.

## **B. ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN MENDE EZ DAUDEN KONTRATUAK**

Honako kontratu hauek dira:

- 5.000.000 euro edo gutxiagoko balio zenbatetsia duten obra-kontratuak.
- 200.000 euro edo gutxiagoko balio zenbatetsia duten hornidura-kontratuak.
- SPKLTBren II. Eranskineko 1. kategoriatik 16.era bitartean bildutako eta 200.000 euro edo gutxiagoko balio zenbatetsia duten zerbitzu-kontratuak.

Zenbateko horiek guztiak BEZik gabeak dira.

- SPKLTBren II. Eranskineko 17. kategoriatik 27.era bitartean bildutako zerbitzu-kontratuak eta 13.2 artikuluko horretako kontratuak, edozein zenbatekoa dutela ere.

---

<sup>1</sup> Edo SPKLTBren Hamaikagarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoari jarraiki, Europako Batzordeak aurrerantzean finkatzen duen kopurua.

## I. Oro har aplikatzekoak diren arauak

### 1. KONTRATAZIO ORGANOA

Kontratatzeko ahalmena EEPren Estatutuetan xedatutakoaren baitan arautuko da, baita aplikatzekoak zaizkion zuzenbide pribatuko arauen baitan ere.

Kontratazio-organoa honako hau da:

- a) Entearen diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspen-orriko ohiko baliabideen % 5 edo hortik beherako zenbatekoa duten kontratuetan:
  - o Kudeatzailea.
- b) Entearen diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspen-orriko ohiko baliabideen % 5etik gorako zenbatekoa duten kontratuetan:
  - o Lehendakaria.

### 2. KONTRATISTEK BETE BEHARREKO BETEKIZUNAK

EEPrekin kontratatu ahal izango dute honako betekizun hauek betetzen eta hori egiaztatzen duten kontratistek:

#### 2.1. Gaitasuna izateko baldintzak

Legearen 54. artikuluan aurreikusitakoak dira.

Horri dagokionez, 55. eta 56. artikulua aplikatu behar dira (Erkidegotik kanpoko enpresei eta bateragarritasun-baldintza bereziei dagokienez, hurrenez hurren).

#### 2.2. Ahalmena

Honako artikulua hauetan eskatzen dena da: 57. artikuluan (pertsona juridikoen ahalmena), 58. artikuluan (Erkidegoko enpresen ahalmena) eta 59. artikuluan (enpresaburuen batasunen ahalmena).

Ahalmena 72. artikuluari jarraiki egiaztatzen da.

### 2.3. Kontratatzeke debekuaren eraginpean ez egotea

Honako artikulua hauek aplikatzen dira: 60.1 artikulua, kontratatzeke debekuei buruzkoa; eta 73. artikulua, kontratatzeke debeku horien eraginpean ez egotea frogatzeko moduei buruzkoa.

### 2.4. Gutxieneko kaudimeneko baldintzak

Kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionaleko gutxieneko baldintzak, Klausula Ekonomiko-Administratiboan Pleguan kasuan-kasuan ezarritakoak izango dira, eta bertan aurreikusitako moduan egiaztatuko dira.

Plegu horretan, kaudimena justifikatzeko aurkeztu beharreko dokumentuak ez ezik, kaudimen hori egiaztatzen duten gutxieneko atalaseak ere identifikatuko dira.

Honako artikulua hauek aplikatuko dira: 62. artikulua (kaudimen-eskakizuna), 63. artikulua (kaudimena kanpoko baliabideen bitartez integratzea) eta 64. artikulua (kaudimen-baldintzen zehaztapena).

### 2.5. Sailkapena

Klausula Ekonomiko-Administratiboan Pleguan aurreikusi bada besterik ez da eskatuko administrazio-sailkapena.

## 3. KONTRATUAREN ELEMENTUAK

### 3.1. Kontratuaren xedea

Bere helburuak edo jarduera bete eta gauzatzeko beharrezkoa denean baino ez ditu egingo kontratuak EEPk. Proiektatutako kontratuaren bidez bete nahi diren premiak zer motatakoak diren eta haien hedapena, baita premia horiek betetzeko kontratuaren xedearen egokitasuna eta edukia ere, zehatz-mehatz azalduko dira eta kontratua prestatzeko dokumentazioan agerraraziko dira.

Kontratuaren xedea 86. artikuluan xedatutakoa aplikatuz ezarriko da.

### 3.2. Kontratuaren iraupena

Kontratuaren iraupena ezartzeko, prestazioak zer motatakoak diren izango du kontuan EEPk, baita finantziario-ezaugarriak eta prestazio horiek egiteko prozesua aldi-aldi konkurrentziaren eraginpean jarri behar direla ere. Horri dagokionez, 23. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

Egin litezkeen luzapenak, hala badagokio, Klausula Ekonomiko-Administratiboan Pleguan aurreikusiko dira, esanbidez aurreikusi ere.

50.000 euro baino gutxiagoko zenbatekoa duten obra-kontratuek eta zuzenean esleitzen den 18.000 euro baino gutxiagoko zenbatekoa duen beste edozein

kontratuk (betiere BEZik gabe), ez dute inoiz urtebetetik gorako iraupena izango, eta ez dira luzatuko.

### 3.3. Prezioa

87. eta 88. artikuluetan kontratuaren prezioari, zenbatetsitako balioa kalkulatzeari eta lizitazio-aurrekontua zehazteari buruzko arauak aplikatuko dira, eta arau horiei Administrazio Publikoa ez izateagatik egin beharreko egokitzapenak egin beharko zaizkie.

Prezioak berrikusiko dira baldin eta dagokion Klausula Ekonomiko-Administratiboan Pleguan aurreikusita badago.

## 4. KONTRATUA PRESTATZEA

### 4.1. Eskaera

Zuzeneko esleipena egin behar denean izan ezik, kontratazioa hasteko, EEPko barne-langileek jarraibide hauei III. Eranskin gisa atxikitako formularioa bete beharko dute. Formulario horretan, nolahi ere, proiektatutako kontratuaren bidez bete nahi diren premiak zer motatakoak diren eta haien hedapena agerraraziko dira, baita premia horiek betetzeko kontratuaren xedea eta edukia egokiak direla ere.

### 4.2. Pleguak

Plegua egin beharko da, nahitaez, 50.000 euro baino gehiagoko zenbatekoa duten obra-kontratuetan (BEZik gabe). Obra-kontratuak ez diren bestelako kontratuen kasuan Plegua egin beharko da, Kontratazio Organoak eskatzen duenean, baldin eta 18.000 euro baino gehiagoko zenbatekoa badute (betiere BEZik gabe).

Zenbateko hori gainditzen duten kontratuetan, Klausula Ekonomiko-Administratiboan Pleguarekin batera, Baldintza Teknikoen Plegua aurkeztuko da.

Pleguan bertan edo dokumentazio osagarrian adieraziko dira, hala badagokio, lan-kontratuak subrogatzeko baldintzak, betiere SPKLTBren 120. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

200.000 euro baino gehiagoko zenbatekoa duten obra-kontratuen lizitazioetan eta obrakoak ez diren 60.000 euroko zenbatekoa gainditzen duten kontratuen lizitazioetan, Pleguak berrikusi egingo dira eta horiei buruzko txosten juridikoa egingo da.

Obra-kontratuetan, halaber, dagokion Obra Proiektua egingo da. Proiektu horrek, hala badagokio, Baldintza Teknikoen Plegua ordeztuko du.

SPKLTBren II. Eranskineko 17. kategoriatik 27.era bitartean bildutako zerbitzu-kontratuak, betiere 200.000 euro edo gehiagoko zenbatekoa badute, SPKLTBren 137.1 artikuluan aurreikusitakoaren eraginpean ere egongo dira.

## 5. KONTRATUA EGITEA

Kontratua formalizatzean burutuko da.

Kontratua idatziz formalizatuko da.

Bidezkoa dela-eta, kontratua zuzenean esleitzen bada, kontratua formalizatzeko nahikoa izan daiteke dagokion aurrekontua egitea eta aurrekontua onartzen dela idatziz jakinaraztea.

Klausula Ekonomiko-Administratiboen Plegua lantzen ez bada, sinatuko den kontratuaren barruan nahitaez barne hartuko da SPKLTBren 26. artikuluan adierazitakoa.

Kontratuan ez da inola ere barne hartuko Pleguetan aurreikusi ez den eta alderdiei eskubideak eta betebeharrak ezartzen dizkion estipulaziorik, aurkeztutako eskaintzaren eta esleipen-egintzaren zehaztapenak bilduta.

## 6. KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratuaren ondorioei eta iraungipenari dagokienez, Pleguetan (hala erabakitzen bada, Herri Administrazioak kontratatzeke duen araudira erreferentzia eginez) eta modu osagarrian zuzenbide zibilean jasotako moduan aplikatuko dira, kontratua aldatzerakoan izan ezik, kasu horretan, betiere, SPKLTBaren I. liburuko V. tituluaren (105, 106, 107 eta 108 artikuluetan) xedatutakoa aplikatuko baita.

Hala ere, eta SPLKTBren 227.9 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, EEPk egindako kontratuen xede diren prestazioen azpikontratazioa SPKLTBren 227. artikuluan xedatutakoaren arabera gauzatu da. Dena den, artikulua horren 5. idatz-zatian bildutako kontratatzeke debekuei buruzko aipamenak SPKLTBren 60.1 artikuluan adierazitako debekuak soilik hartzen ditu eraginpean.

## II. Plegua

Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguak, prozedura negoziatuak berezkoak dituen berezitasunak barnean hartuta, honako alderdi hauek zehaztuko ditu:

- Kontratazio Organoa.
- Publizitatea, kontratzailearen profila lortzeko modua eta publizitate gastuak.
- Kontratuaren xedea eta, hala badagokio, loteak daudela.
- Kontratuaren bitartez bete beharreko premiak eta kontuan hartu beharreko era guztietako faktoreak.
- Oinarrizko lizitazio-aurrekontua edo kontratuaren balio zenbatetsia, eta, hala badagokio, aurrekontuaren urtekoen araberrako banaketa.



- Kontratu-dokumentazioa.
- Kontratuaren iraupena, luzapenak zehaztuta, halakorik badago.
- Kontratua esleitzeko prozedura: Prozedura irekia, murriztua edo negoziatua.
- Proposamenen aurkezpena:

Aurkezteko modua.

Forma eta edukia (aurkeztu beharreko dokumentazioa).

Aurkezteko epea eta tokia.

- Kontratista:

Ahalmena.

Gaitasuna izateko baldintzak.

Kontratatzeko debekuak.

Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa (dokumentuak eta gutxieneko atalaseak).

Kaudimen tekniko edo profesionala (dokumentuak eta gutxieneko atalaseak).

- Ebaluazioa eta esleipena:

Esleipen-irizpideak eta irizpide horien haztapena.

Prozedura negoziatua bada, negoziatutako alderdiak eta, hala badagokio, esleipen-irizpideak eta horien haztapena.

Onartutako proposamenak irekitzea.

Proposamenak ebaluatzea eta eskaintza ekonomikoki abantailatsuen hautatzea.

Eskaintza ekonomikoki abantailatsuen aurkezten duen lizitatzailak aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Kontratuaren esleipena eta horren jakinarazpena.

- Esleipendunak, hala badagokio, aurkeztu beharreko gainerako dokumentazioa eta horretarako epea.
- Kontratua formalizatzea eta horretarako epea.

- Alderdien eskubideak eta betebeharrak.
- Kontratua hartzea eta kontratatutako prestazioaren bermealdia.
- Prezioa ordaintzeko erregimena.
- Kontratua suntsiarazteko arrazoiak.
- Erregimen juridikoa eta jurisdikzioa.

Halaber, Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguak honako alderdi hauek zehaztu ahal izango ditu:

- Finantziazioa.
- Aldaerak edo hobekuntzak: Halakorik baimentzen ote den adieraztea, horien betekizunak, mugak, modalitateak eta kontratuaren zer alderditan onartzen diren bilduta.
- Prezioen berrikuspena (aplikatu beharreko formula edo indize ofiziala adierazita), SPKLTBren 87. artikulua 3. idatz-zatian ezarritakoaren arabera.
- Behin-behineko edo behin betiko bermeak.
- Sailkapena.
- Ahalmenari eta kaudimenari buruzko betekizunak egiaztatzeko dokumentazioa aztertzeko eguna.
- Kontratua aldatzeko aukera, modu argian, zehatzean eta zalantzarik gabekoan adostutako aldaketak erabiltzeko baldintzak, horien ahalmena eta mugak adieraziz, bai eta gehienez kontratuaren zein portzentajeri eragin diezaioketen eta, hori lortzeko, burutu beharreko prozedura ere. Hori guztia, SPKLTBan (106. artikuluan) horren inguruan jasotako xedapenak errespetatuz eta betez.
- Kontratistari ezarritako konfidentzialtasun-betebeharraren hedapen objektiboa eta denbora-arlokoa.
- Lagapena eta azpikontratazioa: Kontratua lagatzeko betekizunak adieraztea eta kontratistak kontrata ditzakeen prestazioak edo prestazioen ehunekoa zehaztea (SPKLTBren 226.2.c) eta 227.5 artikuluei dagokienez).
- Berandutzagatiko eta gauzatze akastunagatiko penalizazioak.
- Beste edozein itun, klausula eta baldintza, betiere ordenamendu juridikoa urratzen ez badute.

### III. Esleitzeko prozedurak

SPKLTBren 191. artikuluan aurreikusitakoa betez, esleitzeko prozedurak adieraziko ditugu segidan, kontratu motak eta kontratuen zenbatekoak kontuan izanik.

Segidan xedatuko den guztia bazter utzi gabe, Kontratazio Organoak lehia-elkarrizketa baliatu ahal izango du, 179. artikulutik 183.era bitartean aurreikusitako kasuetan eta bertako eraginak izanik.

Halaber, kontratazioa arrazionalizatzeko sistemak baliatu ahal izango ditu (esparru-akordioak, kontratazio-sistema dinamikoak eta kontratazio zentralak). Kasu horretan, erregulazio harmonizatuaren mende dauden kontratuak esleitzeko 196. artikulutik 205.era bitartean aurreikusitakoaren arabera jardun beharko du.

#### 1. OBRA KONTRATUAK

##### 1.1. Zenbatekoen araberrako bereizketa

Obra-kontratuari dagokionez, hiru prozedura erabiliko dira, obraren zenbatekoaren arabera. Hona hemen prozedura horiek:

- a) Gehienez 49.999,99 euroko zenbatekoa duten obra-kontratuak.
- b) 50.000 eurotik 999.999,99 eurora bitarteko zenbatekoa duten obra-kontratuak.
- c) 1.000.000 eurotik 4.999.999,99 eurora bitarteko zenbatekoa duten obra-kontratuak<sup>2</sup>.

Zenbateko horiek guztiak BEZik gabeak dira.

##### 1.2. Gehienez 49.999,99 euroko zenbatekoa duten obra-kontratuak.

Era horretako kontratuetan, oro har, **zuzeneko esleipena** baliatuko da. Dagokion aurrekontua jaso eta EEPk onartuko du. Ondoren, dagokion kontratua izenpetuko da edo bestela aurrekontu hori esanbidez eta idatziz onartu, eta onartu izana jakinaraziko da.

Kontratua bete dela egiaztatutakoan, prezioa ordainduko da, kontratistak dagokion faktura aurkeztu eta hura onartu ondoren.

Dena den, prozedura negoziatua —irekia edo murriztua— baliatu ahal izango da. Kasu horretan, hurrengo idatz-zatian xedatutakoa aplikatuko da.

##### 1.3. 50.000 eurotik 999.999,99 eurora bitarteko zenbatekoa duten obra-kontratuak.

<sup>2</sup> Edo SPKLTBren Hamaikagarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoari jarraiki, Europako Batzordeak aurrerantzean finkatzen duen kopurua.

Era horretako kontratuak, berriz, **prozedura negoziatu ireki edo murriztua** izapidetuz esleituko dira, eta Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan zer prozedura aukeratu den bilduko da.

### 1.3.1. PROZEDURA NEGOZIATUA

Prozedura negoziatua aukeratuz gero, honako izapide hauek egin beharko dira:

- a) **Eskaera:** Kontratazio-eskaera egiteko, III. Eranskin gisa atxikitako formularioa bete beharko dute EEPko barne-langileek.
- b) **Eskaintzen eskabidea:** Kontratuaren xedea gauzatzeko ahalmena duten hiru enpresari gutxienez eskatuko zaizkie eskaintzak. Dena den, lizitazioa kontratatzailearen profilean argitaratzen denean, eskaintzarik ez eskatzeko aukera egongo da.
- c) **Pleguak:** Klausula Ekonomiko-Administratiboen Plegu bat egingo da (jarraibide hauen B idatz-zatiko II. epigrafean aurreikusitako edukia bilduta), baita Baldintza Teknikoen Plegu bat edo dagokion Obra Proiektua ere.

Dokumentu horiek berrikusi egingo dira eta haiei buruzko txosten juridikoa egingo da, kontratuaren zenbatekoa 200.000 eurotik gorakoa bada.

Pleguan bertan edo dokumentazio osagarrian adieraziko dira, hala badagokio, lan-kontratuak subrogatzeko baldintzak, betiere SPKLTBren 120. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

- d) **Publizitatea:** Kontratuaren zenbatekoa 200.000 eurotik gorakoa bada horren lizitazioa eta esleipena argitaratuko dira kontratatzailearen profilean.

Kontratuaren esleipena kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Hori guztia atal honetako g) idatz-zatian aurreikusitakoa bazter utzi gabe.

Kontratua kontratatzailearen profilean argitaratzean formalizatuko da. Kontratuaren zenbatekoak 100.000 euroko zenbatekoa gainditzen duenean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, halaber

- e) **Ebaluazioa:** Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan enpresekin negoziatu beharreko alderdi ekonomiko eta teknikoak zehaztuko dira, eta, hala badagokio, esleipen-irizpideak eta horien haztapena zehaztuko dira, halaber.

Negoziatu ondoren eta, hala badagokio, azkenean aurkeztu diren eskaintzak ikusita, EEPko langile teknikoek Kontratazio Organoari bidaliko diote gehiegizkotzat edo ezohikotzat aitortu ez diren proposamenen zerrenda; era berean, eskaintza ekonomikoki abantailatsuen zehaztuko dute.

Egindako gonbidapenak, jasotako eskaintzak, eskaintza horiek onartzeko edo atzera botatzeko arrazoiak eta egindako negoziazioak bilduko dituzte, hala badagokie.

Kontratuaren zenbatekoa 200.000 eurotik gorakoa bada, proposamenarekin batera txosten juridikoa landu eta aurkeztuko da.

- f) **Kontratua esleitzea:** Kontratazio Organoak eskaintza ekonomikoki abantailatsuenaren alde esleituko du kontratua, langile teknikoek egindako proposamena kontuan hartuta.

Kontratazio Organoak erabakiko du kontratuaren esleipena. Esleipena lizitatzailerei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratazio Organoak kontratua esleitzeko orduan ez badu kontuan hartzen langile teknikoek egindako proposamena, horretarako arrazoiak adierazi beharko ditu.

- g) **Aplika daitezkeen beste kasu batzuk:** 170. artikuluan eta 171. artikuluko a), b) eta c) idatz-zatietan aurreikusitako kontratuetan ere prozedura negoziatua aukeratu ahal izango da, kontratu horien zenbatekoa edozein izanik ere.

Orduan, lizitazio-iragarkia 170. artikuluko a) eta b) idatz-zatietan eta 171. artikuluko a) idatz-zatian bildutako kasuetan soilik argitaratuko da kontratatzailearen profilean.

Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan edo jarraibide hauetan esanbidez aurreikusi ez denari dagokionez, 151. (1., 2. eta 3. idatz-zatiak) 169., 176., 177., 178. artikuluetan eta artikuluko horiekin lotura duten gainerako artikuluetan aurreikusitakoa aplikatuko da, betiere Administrazio Publikoa ez izateagatik egin beharreko aldaketak kontuan hartuta.

### 1.3.2. PROZEDURA IREKIA EDO MURRIZTUA

50.000 eta 999.999,99 euro arteko zenbatekoak dituzten obra-kontratuetan, prozedura irekia edo itxia aukeratzeko bada, hurrengo atalean adierazitako ezarrik oda, publizitateari buruzko c) paragrafoan ezarritako kasuan izan ezik.. Azken kasu horretan, publizitate-printzipioari dagokion betebeharra bete dela ulertuko da, lizitazioaren iragarkia, esleipena eta kontratuaren formalizazioa kontratatzailearen profilean argitaratzen denean. Edozein modutan, kontratuaren zenbatekoak 100.000 euroko zenbatekoa gainditzen duenean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, halaber.

Horrez gain, Klausula Ekonomiko-Administratiboen Orria eta Baldintza Teknikoen Orria, edo dagokion Obra Proiektua, ez dira berrikusiko eta ez da txosten juridikorik idatziko, kontratuaren zenbatekoa 200.000 eurokoa edo gutxiagokoa denean.

## 1.4. 1.000.000 eurotik 4.999.999,99 eurora bitarteko zenbatekoa duten obra-kontratuak

Era horretako kontratuak, berriz, **prozedura negoziatu ireki edo murriztua** izapidetuz esleituko dira, eta Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan zer prozedura aukeratu den bilduko da.

Bai **prozedura irekia**, bai **murriztua**, aukeratuz gero, honako arau hauek aplikatuko dira:

- a) **Eskaera:** Eskaera egiteko, III. Eranskin gisa atxikitako formularioa bete beharko dute EEPko barne-langileek.
- b) **Pleguak:** Klausula Ekonomiko-Administratiboen Plegu bat egingo da (jarraibide hauen B idatz-zatiko II. epigrafean aurreikusitako edukia bilduta), baita Baldintza Teknikoen Plegu bat edo dagokion Obra Proiektua ere.

Dokumentu horiek berrikusi egingo dira eta haiei buruzko txosten juridikoa egingo da.

Pleguan bertan edo dokumentazio osagarrian adieraziko dira, hala badagokio, lan-kontratuak subrogatzeko baldintzak, betiere SPKTBLren 120. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

- c) **Publizitatea:** Lizitazioa kontratatzailearen profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da gutxienez, edo kontratatzailearen profilean eta probintziako egunkari batean, eta egindako aukera Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan adieraziko da.

Kontratuaren esleipena kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratuaren formalizazioa kontratatzailearen profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

- d) **Proposamenak aurkezteko epea:** Proposamenak aurkezteko epea Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan zehaztuko da, baina ez da inola ere hogeita sei (26) egunetik beherakoa izango, betiere Kontratazio Organoaren iritziz epea murriztea justifikatzen duen salbuespeneko inguruabarrik ez badago.
- e) **Proposamenak aurkezteko modua:** Proposamenak sekretupekoak izango dira eta gutun-azal itxietan aurkeztuko dira, Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan zehazten den moduan.
- f) **Ebaluazioa:** Kontratua esleitzeko oinarritzat hartuko diren irizpideak eta irizpide horien haztapena Kontratazio Organoak zehaztuko ditu, eta iragarkian nahiz Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan adieraziko dira.

Kontratuaren xedeari zuzenean lotutako irizpideak hartu ahal izango dira kontuan, hala nola kalitatea, prezioa, obraren erabilerari lotutako ordainsariak berrikusteko erabiliko den formula, prestazioa gauzatzeko edo entregatzeko epea, erabilera-kostua, ingurumen-ezaugarriak edo gizarte-eskakizunak betetzeari lotutako ezaugarriak, errentagarritasuna, balio teknikoa, ezaugarri estetiko edo funtzionalak, ordezeko piezen aukera eta kostua, mantentzea, laguntza teknikoa, saldu osteko zerbitzua, eta antzeko beste alderdi batzuk.

Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan, Batzorde jakin baten osaera eta eskumenak bilduko dira. Batzorde horren ardura izango da aurkeztutako proposamenei buruzko ebaluazio-txosten objektiboa egitea eta Kontratazio Organoari esleipen-proposamena helaraztea; eta proposamen horretan barne hartuko da gehiegizkotzat edo ezohikotzat aitortu ez diren proposamenen zerrenda (proposamen altuenetik baxuenera) eta eskaintza ekonomikoki abantailatsua adieraziko du, betiere Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan proposamenak balioesteko aurreikusitako irizpide objektiboek jarraiki.

200.000 eurotik gorako kontratuen kasuan, aipatutako proposamenarekin batera txosten juridiko bat landu eta aurkeztuko da, betiere Batzordean aholkularitza juridikorik barne hartzen ez bada.

- g) **Kontratua esleitzea:** Kontratazio Organoak eskaintza ekonomikoki abantailatsuenaren alde esleituko du kontratua, betiere kontuan hartuta Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan proposamenak balioesteko aurreikusitako irizpide objektiboak eta Ebaluazio Batzordeak egiten duen proposamena.

Kontratazio Organoak erabakiko du kontratuaren esleipena. Esleipena lizitatzailerei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, kontratatzailearen profileen argitaratuko da.

Kontratazio Organoak kontratua esleitzeko orduan ez badu kontuan hartzen langile teknikoek egindako proposamena, horretarako arrazoiak adierazi beharko ditu.

Pleguan edo jarraibide hauetan esanbidez aurreikusi ez den kasuetan, honako artikulua hauetan aurreikusitakoa aplikatuko da:

- prozedura irekirako eta prozedura murrizturako, 151. artikuluan (1., 2. eta 3. idatz-zatiak) aurreikusitakoa.
- prozedura irekirako, 157., 158. eta 160. artikuluetan aurreikusitakoa (ezin izango da inola aplikatu adituen batzordearen edo erakunde tekniko espezializatuaren esku-hartzeari buruz aurreikusitakoa) eta 161. artikuluan aurreikusitakoa; prozedura murrizturako, 162., 163., 165., 166., 167., 168. artikuluetan eta horiekin lotura dutela-eta aplika daitezkeen gainerako artikuluetan, aurreikusitakoa. Bi kasuetan, Administrazio Publikoa ez izateagatik dagozkion moldaketak egin beharko dira.

## 2. GAINERAKO KONTRATUAK (HORNIDURA, ZERBITZUAK ETA BESTELAKOAK)

### 2.1. Zenbatekoen araberako bereizketa

Kontratu horiei dagokienez (hornidura, zerbitzuak eta bestelakoak), hiru prozedura erabiliko dira, kontratuen zenbatekoaren arabera. Hona hemen prozedura horiek:

- a) Gehienez 17.999,99 euroko zenbatekoa duten kontratuak.
- b) 18.000 eurotik 99.999,99 eurora bitarteko zenbatekoa duten kontratuak.
- c) 100.000 eurotik 199.999,99 eurora bitarteko hornidura- eta zerbitzu-kontratuak<sup>3</sup>, eta gainerako kontratuak, gehieneko zenbatekorik gabe.

Zenbateko horiek guztiak BEZik gabeak dira.

### 2.2. Gehienez 17.999,99 euroko zenbatekoa duten kontratuak.

Era horretako kontratuetan, oro har, **zuzeneko esleipena** baliatuko da. Dagokion aurrekontua jaso eta EEPk onartuko du. Ondoren, dagokion kontratua izenpetuko da edo bestela aurrekontu hori esanbidez eta idatziz onartu, eta onartu izana jakinaraziko da.

Kontratu bete dela egiaztatutakoan, prezioa ordainduko da, kontratistak dagokion faktura aurkeztu eta hura onartu ondoren.

Dena den, prozedura negoziatua —irekia edo murriztua— baliatu ahal izango da. Kasu horretan, hurrengo idatz-zatian xedatutakoa aplikatuko da.

### 2.3. 18.000 eurotik 99.999,99 eurora bitarteko zenbatekoa duten kontratuak.

Era horretako kontratuak, berriz, prozedura negoziatu ireki edo murriztua izapidetuz esleituko dira, eta Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan zer prozedura aukeratu den bilduko da. Horrelakorik ez badago, Kontratazio Organoak erabakiko du berariaz zein prozedura jarraitu.

#### 2.3.1. PROZEDURA NEGOZIATUA

Prozedura negoziatua aukeratuz gero, honako izapide hauek egin beharko dira:

- a) **Eskaera:** Kontratazio-eskaera egiteko, III. Eranskin gisa atxikitako formularioa bete beharko dute EEPko barne-langileek.
- b) **Eskaintzen eskabidea:** Kontratuaren xedea gauzatzeko ahalmena duten hiru enpresari gutxienez eskatuko zaizkie eskaintzak. Dena den,

<sup>3</sup>Edo SPKLTBren Hamaikagarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoari jarraiki, Europako Batzordeak aurrerantzean finkatzen duen kopurua.



lizitazioa kontratzailearen profilean argitaratzen denean, eskaintzarik ez eskatzeko aukera egongo da.

- c) **Pleguak:** Kontratuaren zenbatekoa 50.000 eurotik gorakoa denean, Klausula Ekonomiko-Administratiboen Plegu bat egingo da (jarraibide hauen B idatz-zatiko II. epigrafean aurreikusitako edukia bilduta), baita Baldintza Teknikoen Plegu bat ere.

Dokumentu horiek berrikusi egingo dira eta haiei buruzko txosten juridikoa egingo da, kontratuaren zenbatekoa 60.000 eurotik gorakoa bada.

Kontratuaren zenbatekoa 50.000 eurotik gorakoa denean, Pleguan bertan edo dokumentazio osagarrian adieraziko dira, hala badagokio, lan-kontratuak subrogatzeko baldintzak, betiere SPKLTBren 120. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Kontratuaren zenbatekoa 50.000 euro edo gutxiago bada, hautazkoa izango da Pleguak lantzea.

- d) **Publizitatea:** Kontratuaren zenbatekoa 60.000 eurotik gorakoa bada horren lizitazioa eta esleipena argitaratuko dira kontratzailearen profilean.

Kontratuaren esleipena kontratzailearen profilean argitaratuko da.

Hori guztia atal honetako g) idatz-zatian aurreikusitakoa bazter utzi gabe.

Kontratuaren formalizazioa kontratzailearen profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

- e) **Ebaluazioa:** Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan enprekin negoziatu beharreko alderdi ekonomiko eta teknikoak zehaztuko dira, eta, hala badagokio, esleipen-irizpideak eta horien haztapena zehaztuko dira, halaber.

Negoziatu ondoren eta, hala badagokio, azkenean aurkeztu diren eskaintzak ikusita, EEPko langile teknikoek Kontratazio Organoari bidaliko diote gehiegizkotzat edo ezohikotzat aitortu ez diren proposamenen zerrenda; era berean, eskaintza ekonomikoki abantailatsuena zehaztuko dute, hala badagokie.

Egindako gonbidapenak, jasotako eskaintzak, eskaintza horiek onartzeko edo atzera botatzeko arrazoiak eta egindako negoziazioak bilduko dituzte.

Kontratuaren zenbatekoa 60.000 eurotik gorakoa bada, proposamenarekin batera txosten juridikoa landu eta aurkeztuko da.

- f) **Kontratua esleitzea:** Kontratazio Organoak eskaintza ekonomikoki abantailatsuenaren alde esleituko du kontratua, langile teknikoek egindako proposamena kontuan hartuta.

Kontratazio Organoak erabakiko du kontratuaren esleipena. Esleipena lizitatuzaileei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratazio Organoak kontratua esleitzeko orduan ez badu kontuan hartzen langile teknikoek egindako proposamena, horretarako arrazoiak adierazi beharko ditu.

- g) **Aplika daitezkeen beste kasu batzuk:** 170. artikuluan, 173. artikuluko a), b), c), d) eta e) idatz-zatietan, 174. artikuluan a), b), c) eta d) idatzi-zatietan eta 175. artikuluan aurreikusitako kontratuaren ere prozedura negoziatua aukeratu ahal izango da, kontratu horien zenbatekoa edozein izanik ere.

Orduan, lizitazio-iragarkia 170. artikuluko a) eta b) idatz-zatietan, 174. artikuluko a) idatz-zatietan eta 175. artikuluan, bildutako kasuetan soilik argitaratuko da kontratatzailearen profilean (zenbatekoa dela-eta prozedura negoziatua baliatzen bada, betiere zenbatekoa 60.000 eurotik gorakoa bada).

Klausula Ekonomiko-Administratiboaren Pleguan edo jarraibide hauetan esanbidez aurreikusi ez denari dagokionez, 151. (1., 2. eta 3. idatz-zatiak) 169., 176., 177., 178. artikuluetan eta artikuluko horiekin lotura duten gainerako artikuluetan aurreikusitakoa aplikatuko da, betiere Administrazio Publikoa ez izateagatik egin beharreko aldaketak kontuan hartuta.

### 2.3.2. PROZEDURA IREKIA EDO MURRIZTUA

18.000 eta 99.999,99 euro arteko zenbatekoak dituzten obra-kontratuaren (hornikuntza, zerbitzuak eta hainbat), prozedura irekia edo itxia aukeratzeko bada, hurrengo atalean adierazitako ezarriko da, publikitateari buruzko c) paragrafoan ezarritako kasuan izan ezik. Azken kasu horretan, publikitate-printzipioari dagokion betebeharra bete dela ulertuko da, lizitazioaren iragarkia, esleipena eta kontratuaren formalizazioa kontratatzailearen profilean argitaratzen denean.

Horrez gain, Klausula Ekonomiko-Administratiboaren Orria eta Baldintza Teknikoen Orria, edo dagokion Obra Proiektua, ez dira berrikusiko eta ez da txosten juridikorik idatziko, kontratuaren zenbatekoa 60.000 eurokoa edo gutxiagokoa denean.

### 2.4. 100.000 eurotik 199.999,99 eurora bitarteko zenbatekoa duten kontratuak.

Era horretako kontratuak, berriz, prozedura negoziatu ireki edo murriztua izapidetuz esleituko dira, eta Klausula Ekonomiko-Administratiboaren Pleguan zer prozedura aukeratu den bilduko da.

Bai prozedura irekia, bai murriztua, aukeratuz gero, honako arau hauek aplikatuko dira:

- a) **Eskaera:** Eskaera egiteko, jarraibide hauei III. Eranskin gisa atxikitako formularioa bete beharko dute EEPko barne-langileek.
- b) **Pleguak:** Klausula Ekonomiko-Administratiboen Plegu bat egingo da (jarraibide hauen B idatz-zatiko II. epigrafean aurreikusitako edukia bilduta), baita Baldintza Teknikoen Plegu bat edo dagokion Obra Proiektua ere.

Dokumentu horiek berrikusi egingo dira eta haiei buruzko txosten juridikoa egingo da.

Pleguan bertan edo dokumentazio osagarrian adieraziko dira, hala badagokio, lan-kontratuak subrogatzeko baldintzak, betiere SPKLTBren 120. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

- c) **Publizitatea:** Lizitazioa kontratatzailearen profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da gutxienez, edo kontratatzailearen profilean eta probintziako egunkari batean, eta egindako aukera Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan adieraziko da.

Kontratuaren esleipena kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratuaren formalizazioa kontratatzailearen profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

- d) **Proposamenak aurkezteko epea:** Proposamenak aurkezteko epea Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan zehaztuko da, baina ez da inola ere hamabost (15) egunetik beherakoa izango, betiere Kontratazio Organoaren iritziz epea murriztea justifikatzen duen salbuespeneko inguruabarrak ez badago.
- e) **Proposamenak aurkezteko modua:** Proposamenak sekretupekoak izango dira eta gutun-azal itxietan aurkeztuko dira, Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan zehazten den moduan.
- f) **Ebaluazioa:** Kontratua esleitzeko oinarritzat hartuko diren irizpideak eta irizpide horien haztapena Kontratazio Organoak zehaztuko ditu, eta iragarkian nahiz Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan adieraziko dira.

Kontratuaren xedeari zuzenean lotutako irizpideak hartu ahal izango dira kontuan, hala nola kalitatea, prezioa, obraren erabilerari lotutako ordainsariak berrikusteko erabiliko den formula, prestazioa gauzatzeko edo entregatzeko epea, erabilera-kostua, ingurumen-ezaugarriak edo gizarte-eskakizunak betetzeari lotutako ezaugarriak, errentagarritasuna, balio teknikoa, ezaugarri estetiko edo funtzionalak, ordezko piezen aukera eta

kostua, mantentzea, laguntza teknikoa, saldu osteko zerbitzua, eta antzeko beste alderdi batzuk.

Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan, Batzorde jakin baten osaera eta eskumenak bilduko dira. Batzorde horren ardura izango da aurkeztutako proposamenei buruzko ebaluazio-txosten objektiboa egitea eta Kontratazio Organoari esleipen-proposamena helaraztea; eta proposamen horretan barne hartuko da gehiegizkotzat edo ezohikotzat aitortu ez diren proposamenen zerrenda (proposamen altuenetik baxuenera) eta eskaintza ekonomikoki abantailatsuena adieraziko du, betiere Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan proposamenak balioesteko aurreikusitako irizpide objektiboei jarraiki.

60.000 eurotik gorako kontratuen kasuan, aipatutako proposamenarekin batera txosten juridiko bat landu eta aurkeztuko da, betiere Batzordean aholkularitza juridikorik barne hartzen ez bada.

- g) **Kontrata esleitzea:** Kontratazio Organoak eskaintza ekonomikoki abantailatsuenaren alde esleituko du kontratua, betiere kontuan hartuta Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan proposamenak balioesteko aurreikusitako irizpide objektiboei jarraiki eta Ebaluazio Batzordeak egiten duen proposamena kontuan hartuta.

Kontratazio Organoak erabakiko du kontratuaren esleipena. Esleipena lizitatzaileri jakinaraziko zaie eta, aldi berean, kontratatzailearen profileen argitaratuko da.

Kontratazio Organoak kontratua esleitzeko orduan ez badu kontuan hartzen langile teknikoek egindako proposamena, horretarako arrazoiak adierazi beharko ditu.

Pleguan edo jarraibide hauetan esanbidez aurreikusi ez den kasuetan, honako artikulua hauetan aurreikusitakoa aplikatuko da:

- prozedura irekirako eta prozedura murrizturako, 151. artikuluan (1., 2. eta 3. idatz-zatiak) aurreikusitakoa.
- prozedura irekirako, 157., 158. eta 160. artikuluetan (ezin izango da inola aplikatu adituen batzordearen 161 erakunde tekniko espezializatuaren esku-hartzeari buruz aurreikusitakoa) eta 162. artikuluan aurreikusitakoa; prozedura murrizturako, 162., 163., 165., 166., 167., 168. artikuluetan eta horiekin lotura dutela eta aplikatu daitezkeen gainerako artikuluetan, aurreikusitakoa. Bi kasuetan, Administrazio Publikoa ez izateagatik dagozkion moldaketak egin beharko dira.

#### IV. Errekurtsoak

Kontratu horiek prestatu, esleitu, bete eta amaitzeari, baita kontratuen eraginei dagokienez ere, **jurisdikzio-ordena zibilean** besterik ezin izango da errekurtsoa aurkeztu.

SPKLTBren II. Eranskinaren 17. kategoriatik 27.era bitartean barne hartzen diren zerbitzu-kontratuen prestatzearekin eta esleipenarekin erlazionatutako alderdi orotan, baldin eta kontratuen zenbatekoa 200.000 euro edo gehiagokoa bada, jarraibide hauen C idatz-zatiko IV. epigrafearen arabera erregulazio harmonizatuaren mende dauden kontratueterako xedatutakoari jarraituko zaio.

Halaber, egindako kontratuen eraginei nahiz kontratuak betetzeari eta amaitzeari dagokienez sortzen diren desadostasunetarako irtenbidea **arbitrajearen** eraginpean jarri ahal izango da, abenduaren 23ko 60/2003 Legean xedatutakoari jarraiki. Orduan, Klausula Ekonomiko-Administratiboan Pleguan agerrarazi beharko da, eta, halakorik ez, beste edozein kontratu-dokumentutan.

#### C. ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN MENDE DAUDEN KONTRATUAK

Honako kontratu hauek dira:

- 5.000.000 euro edo gehiagoko balio zenbatetsia duten obra-kontratuak<sup>4</sup>.
- 200.000 euro edo gehiagoko balio zenbatetsia duten hornidura-kontratuak<sup>4</sup>.
- SPKLTBren II. Eranskineko 1. kategoriatik 16.era bitartean bildutako eta 200.000 euro edo gehiagoko balio zenbatetsia duten zerbitzu-kontratuak<sup>4</sup>.

Zenbateko horiek guztiak BEZik gabeak dira.

Hori guztia 13.2 artikuluan bildutako kontratuak izan ezik. Kontratu horiek, edozein balio zenbatetsi dutela ere, ez dira erregulazio harmonizatuaren mendekotzat hartuko.

#### I. Oro har aplikatzekoak diren arauak

Erregulazio harmonizatuaren mende dauden kontratuei, erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuentzat jarraibide hauen B idatz-zatiko I. epigrafean aurreikusitakoa aplikatu behar zaie, jarraian adierazitako berezitasunak kontuan hartuta:

<sup>4</sup> Edo SPKLTBren Hamaikagarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoari jarraiki, Europako Batzordeak aurrerantzean finkatzen duen kopurua.

## 1. KONTRATISTEK BETE BEHARREKO BETEKIZUNEI DAGOZKIEN BEREZITASUNAK

### 1.1. Gaitasuna izateko baldintzei dagozkien berezitasunak

54. artikuluan xedatutakoaz gain, 55. artikulua aplikatu behar da (ez da eskatuko Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu duten Estatuetakoen enpresei dagokien elkarrekikotasun-txostenik).

### 1.2. Kaudimena izateko gutxieneko baldintzei dagozkien berezitasunak

Jarraibide hauen B.I epigrafeko 2.4 idatz-zatian xedatutakoaz gain, kaudimena egiaztatze baliabideei dagokienez, 74. artikulutik 79.era bitarteko artikulua aplikatuko dira nolana ere.

### 1.3. Kalitate-bermeari buruzko arauak eta ingurumen-kudeaketari buruzko arauak betetzea

80. eta 81. artikulua aplikatuko dira kalitate-bermeari buruzko arauak eta ingurumen-kudeaketari buruzko arauak betetzea egiaztatzei dagokienez.

Horretarako aurreikuspenak Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan ezarriko dira.

## 2. KONTRATUA PRESTATZEA

Preskripzio teknikoak ezartzei buruz 117. artikuluan ezarritako arauak aplikatuko dira.

Halaber, honako artikulua hauekin xedatutakoa aplikatuko da: 118. artikuluan (kontratua gauzatzeko baldintza bereziak), 119. artikuluan (zerga-arloari, ingurumen-babesari, eta enplegu eta lan-baldintzei buruzko betebeharren gaineko informazioa), eta 120. artikuluan (lan-kontratuei dagokienez, subrogazio-baldintzei buruzko informazioa)

Kontratua egitea premia geroraezinen bati erantzuteko beharrezkoa bada edo interes publikoko arrazoiak tarteko esleipena azkartu egin behar bada, Kontratazio Organoak kontratua izapidetzea premiazkotzat eman ahal izango du, betiere kontratua prestatzeko dokumentazioan behar bezala arrazoituta. Kasu horretan, epeak murrizteari buruz 112.2.b) artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

Klausula Ekonomiko-Administratiboen Plegua eta Baldintza Teknikoen Plegua berrikusi egingo dira eta haiei buruzko txosten juridikoa egingo da, kasu guztietan.

## 3. KONTRATUA BURUTU ETA FORMALIZATZEA

Kontratua formalizatzean burutuko da eta idatziz formalizatuko da.

## II. Plegua

Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguak, jarraibide hauen B idatz-zatiko II. epigrafean erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratueterako adierazitako alderdiak ez ezik, honako alderdi hauek ere zehatz ditzake:

- Kalitate-bermeari buruzko arauak eta ingurumen-kudeaketari buruzko arauak betetzeari buruzko egiaztapena (SPKLTBren 80. eta 81.artikuluetan ezarritakoaren arabera).
- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak eta baldintza horiek ez betetzearen ondorioak (SPKLTBren 118. artikuluan aurreikusitako moduan).
- Zerga-arloari, ingurumena babesteari, eta enplegu eta lan-baldintzei dagozkien betebeharreri buruzko informazioa (SPKLTBren 119. artikuluan ezarritakoaren arabera)

## III. Esleitzeko prozedura

Erregulazio harmonizatuaren mende dauden kontratuak SPKLTBren 190. artikuluan ezarritakoari jarraiki esleituko dira, hau da, Administrazio Publikoen kontratuentzat aurreikusitako moduan, betiere honako moldaketa hauek eginez:

- a) Ez da aplikatuko irizpide subjektiboen balioespenerako adituen batzordearen esku-hartzeari buruz 150. artikuluan 2. idatz-zatiko bigarren paragrafoan ezarritakoa.
- b) Ez da aplikatuko eskaintzak anormalak edo neurritz kanpokoak ote diren antzemateko irizpideei buruz 152. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatietan ezarritakoa.
- c) Ez da aplikatuko 156. artikuluan kontratuak formalizatzeari buruz ezarritakoa, betiere 3. idatz-zatian ezarritako epea kontuan hartzeko betebeharraren eta 5. idatz-zatian aurreikusitakoaren kalterik gabe.
- d) Ez da aplikatuko 160. artikuluan proposamenen azterketari eta esleipen-proposamenari buruz ezarritakoa.
- e) Ez da aplikatuko 172. artikuluan zerbitzu publikoen kudeaketa-kontratuak esleitzeko prozedura negoziatua balia daitekeen kasuei buruz ezarritakoa.

Premiazko arrazoiak tarteko Legean ezarritako gutxieneko epeak bete ezin direnean, 112.2.b) artikuluan epeak murrizteari buruz aurreikusitakoa aplikatuko da.

Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan, Batzorde jakin baten osaera eta eskumenak bilduko dira. Batzorde horren arduraren izango da aurkeztutako proposamenei buruzko ebaluazio-txosten objektiboa egitea eta Kontratazio Organoari esleipen-proposamena helaraztea; eta proposamen horretan barne hartuko da gehiegizkotzat edo ezohikotzat aitortu ez diren proposamenen zerrenda (proposamen altuenetik baxuenera) eta eskaintza ekonomikoki abantailatsuena adieraziko du, betiere Klausula Ekonomiko-

Administratiboen Pleguan proposamenak balioesteko aurreikusitako irizpide objektiboei jarraiki.

Proposamen hori txosten juridikoarekin batera aurkeztuko da, baldin eta Batzordean aholkularitza juridikoa barne hartu ez bada.

Edozein kasutan, lizitatuzaileei bidaliko zaien esleipenaren jakinarazpenean barne hartuko da lizitazioetik kanpo geratu den lizitatuzaileak edo baztertu den hautagaiak esleipen-erabakiaren aurkako errekurso arrazoitua jartzeko beharrezkoa duen informazioa, SPKLTBren 40. artikuluan xedatutakoari jarraiki. Honako alderdi hauek barne hartuko dira jakinarazpenean:

- a) Baztertu diren hautagaiei dagokienez, aurkeztu duten hautagaitza baztertzeko arrazoen laburpena.
- b) Esleipen-prozeduratik kanpo geratu diren lizitatuzaileei dagokienez, aurkeztu duten eskaintza ez onartzeko arrazoen laburpena.
- c) Edozein kasutan, honako alderdi hauek zehaztuko dira: esleipendunaren izena, kasuan-kasuan eskaintza hautatzeko erabakigarriak izan diren eta gainerako lizitatuzaileek aurkeztu dituzten eta onartu diren eskaintzekiko lehentasuna eman zaien proposamenaren ezaugarriak eta abantailak.

153. artikuluan barne hartzen den konfidentziasun-salbuespena aplikatuko zaie esleipenaren zioei.

Nolanahi ere, jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean kontratua formalizatzeko epea zehaztuko da, 156.3 artikulua araber.

Lizitazioa eta esleipena honako toki hauetan argitaratuko dira gutxienez:

- a) Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean eta 334. artikulua aipatzen duen kontratazio-plataforman edo DONOSTIA TURISMOAri dagokion Administrazio Publikoak kudeatzen duen pareko sisteman.
- b) Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean eta Estatuko Aldizkari Ofizialean.

Halaber, lizitazioko eta behin-behineko nahiz behin betiko esleipeneko iragarpenak kontratatzailearen profilean argitaratuko dira.

## IV. Errekurtsoak

### 1. PRESTAKETA ETA ESLEIPENA

Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu aurretik **kontratazio-arloko errekurtso berezia** aurkeztu ahal izango da:

- a) lizitazioa arautzen duten ezaugarriak ezartzen dituzten lizitazio-iragarkien, Pleguen eta kontratu-dokumentuen aurka



- b) esleipen-prozeduran barne hartzen diren izapidetze-egintzen aurka, prozedurarekin jarraitzeko ezintasuna adierazten badute edo legezko eskubide edo interesekiko defentsa-gabezia edo kalte konponezina eragiten badute
- c) esleipen-akordioen aurka.

Errekurtsoa ebazteko eskumena Donostiako Udalean horretarako eskumena duen organoarena da, betiere abuztuaren 5eko 34/2010 Legearen bigarren xedapen iragankorrean eta SPKLTBren 41. artikuluan 4. eta 5. idatz-zatietan aurreikusten denari jarraiki.

Kontratazio-arloko errekurtsu berezia SPKLTBren 40. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera izapidetuko da.

Behin-behineko neurriak ezartzeko, SPKLTBren 43. artikuluan xedatzen denari jarraituko zaio.

Errekurtsoaren ebazpenaren aurka **administrazioarekiko auzi-errekurtsoa** besterik ezin izango da aurkeztu, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoari jarraiki.

Baliogabetasunari dagokionez errekurtsu aurkezteko orduan, SPKLTBren 39. artikuluan aurreikusitakoari jarraituko zaio.

SPKLTBren II. Eranskinen 17. kategoriatik 27.era bitartean bildutako zerbitzu-kontratuak, edozein zenbatekoa dutela ere, ez daude erregulazio harmonizatuaren mende; hala ere, kontratu horien zenbatekoa 200.000 euro edo gehiagokoa bada, contratazio-arloko errekurtsu berezia eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da haien aurka, betiere atal honetan aurreikusitako moduan.

## 2. ERAGINAK ETA AMAIERA

Kontratu horiek bete eta amaitzeari, baita kontratuen eraginei dagokienez ere, **jurisdikzio-ordena zibilean** besterik ezin izango da errekurtsu aurkeztu.

## V. Ofiziozko berrikuspena

Erregulazio harmonizatuaren mende dauden kontratuak prestatzeko egintzen eta esleipen-egintzen ofiziozko berrikuspena egiteko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen Lehen Kapituluko VII. Tituluan xedatutakoari jarraituko zaio.

Donostiako Udalean EEPko zaintza dagokion ataleko arduradunak du eskumena egintza horiek baliogabetzat jotzeko edo kaltegarritzat jotzeko.

Betiere SPKLTBren 34. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki jokatuko da.

## D. KONTRATATZAILEAREN PROFILA

EEPk bere kontratatzaile-profila zabalduko du Internet bidez, bere kontratu-jarduerari buruzko informazioa gardena izan dadin eta jendeak eskuratzeko aukera izan dezan bermatze aldera.

Kontratatzailearen profilean sarbidea izateko modua Pleguetan eta lizitazio-iragarkietan zehaztuko da, besteak beste.

Kontratatzailearen profilaren euskarri izango den sistema informatikoak, berriz, bertan biltzen den informazioaren hedapen publikoa noiz hasten den argi eta garbi egiaztatzea ahalbidetzen duen sistemaren bat izan beharko du.

EEPren kontratatzailearen profilean honako datu eta informazio hauek argitaratuko dira:

- a) Kontratazioko barne-jarraibide hauek.
- b) Kontratuen lizitazio-iragarkiak, kontratu txikiak eta publizitaterik gabe negoziatutakoak salbu.
- c) Kontratuen esleipena, kontratu txikiak salbu.
- d) Kontratuen formalizazioa erregulazio harmonizatuaren mende dago.

Halaber, kontratatzailearen profilean EEPren kontratu-jarduerari buruzko edozein datu eta informazio bildu ahal izango da, hala nola: 141. artikuluan bildutako alde zuzeneko informazioko iragarkiak, irekitako edo arribideko lizitazioak eta haiei buruzko dokumentazioa, programatutako kontratazioak, esleitutako kontratuak, deuseztatutako prozedurak, Kontratazio Organoarekin harremanetan jartzeko erabil daitezkeen gune eta komunikabideak, eta abar.

## I. ERANSKINA

### **4. artikulua. Salbuetsitako negozio eta kontratuak**

1. Lege honen eremutik kanpo utzi dira honako negozio eta harreman juridiko hauek:

a) Funtzionario publikoen zerbitzu-harremana eta lan-legedian araututako kontratuak.

b) Zerbitzu publikoa ematean dautzan harreman juridikoak, betiere zerbitzu publiko horiek erabiltzeko oro har aplikatu beharreko tarifa, tasa edo prezio publikoren bat ordaindu behar badute erabiltzaileek.

c) Estatuko Administrazio Orokorrak Gizarte Segurantzaren, Unibertsitate Publikoen, Autonomia Erkidegoan, Toki Erakundeen, erakunde autonomoen eta gainerako entitate publikoen erakunde kudeatzaile eta zerbitzu komunekin egiten dituen lankidetzahitzarmenak, edo erakunde eta entitate horiek beren artean egiten dituztenak, salbu eta, beren izaera kontuan izanik, Lege honen eraginpeko kontratutzat hartzen badira.

d) Administrazioak pertsona fisiko eta juridikoekin egiten dituen hitzarmenak, hitzarmen horiek arautzen dituzten berariazko arauak kontuan izanik, baldin eta hitzarmen horien xedea ez badago Lege honetan araututako kontratuetan edo administrazio-arau berezietan bilduta.

e) Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 346. artikulua esparruan barne hartzen diren hitzarmenak -defentsaren sektorean erabakitzen direnak.

f) Estatuak beste Estatu batzuekin edo nazioarteko zuzenbide publikoko entitateekin egiten dituen akordioak.

g) Merkataritza-, industria- eta finantza-arloko jarduera eta horien pareko jarduera duten eta Administrazio publikoen mende dauden zuzenbide publikoko erakundeen zuzeneko jarduerak jomugan dituzten hornidura-kontratuak, betiere eraginpean hartzen dituzten ondasunak, eraldatuta edo eraldatu gabe, ondare-trafiko juridikora itzultzeko asmotan eskuratu badira, beren helburu bereziei jarraiki, baldin eta erakunde horiek Legeak esleitzen dizkien eskumen espezifikokoak baliatuz badihardute.

h) Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunari jarraiki Erkidegotik kanpoko herrialde batekin edo gehiagorekin egindako nazioarteko akordioaren harira egindako kontratu eta hitzarmen jakin batzuk, hain zuzen ere obra bat elkarrekin egin edo ustiatzeko obrako edo hornidurako kontratu eta hitzarmenak, edo proiektu bat elkarrekin egin edo ustiatzeko egindako zerbitzu-kontratuak.

i) Tropen egonaldia dela-eta egindako nazioarteko akordioaren arabera egindako kontratu eta hitzarmenak.

j) Nazioarteko erakunderen baten prozedura espezifikokoaren arabera esleitutako kontratu eta hitzarmenak.

k) Arbitraje- eta adiskidetze-zerbitzuei buruzko kontratuak.

l) Balioak edo bestelako finantza-tresnak jaulki, erosi, saldu eta transferitzeari lotutako finantza-zerbitzuekin zerikusia duten kontratuak, bereziki Estatuaren finantza-kudeaketarako eragiketak; baita sektore publikoko ente, erakunde eta entitateek fondoak edo kapitala lortzeko eragiketak, Espainiako Bankuak emandako zerbitzuak, eta diruzaintza-eragiketak ere.

m) Sektore publikoko ente, erakunde edo entitate bat ondasunak edo eskubideak ematera edo zerbitzuren bat ematera behartzen duten kontratuak, betiere ondasunak eskuratzen dituenak edo zerbitzuak hartzen dituenak, Lege honen mende dagoen sektore publikoko entitate bat bada, Lege horrek agindutakoa aintzat hartzeko duen betebeharra bazter utzi gabe.

n) Negozio juridikoak, honako kasu honetan: negozio horien baitan, 24.6 artikuluan ezarritakoaren arabera baliabide propioetat eta horren zerbitzu teknikoetat hartzen den entitate bati prestazio jakin bat egitea eskatzen zaionean. Dena den, enkargatu zaizkien prestazioak egiteko baliabide propioetat eta zerbitzu teknikoetat hartzen diren entitateek egin behar dituzten kontratuak Lege honen eraginpean egongo dira, dagokion moduan, betiere kontratuak egiten dituen entitatearen izaera eta kontratuak zein motatakoak diren eta zer zenbateko duten kontuan izanik. Nolanahi ere, Aurretiko Titulu honen II. Kapituluko 2. Idatz-zatian ezarritako atalaseak gainditzen dituzten zenbatekoko obra-, zerbitzu- edo hornidura-kontratuen kasuan, zuzenbide pribatuko entitateek, kontratu horiek prestatu eta esleitzeko, 137.1 eta 190. artikuluetan ezarritako arauak bete beharko dituzte.

o) Jabari publikoko ondasunei buruzko baimen eta emakidak, eta 7. artikuluan zehaztutakoak ez diren ondare-ondasunak ustiatzeko kontratuak. Horiek guztiak beren berariazko legediaren arabera arautuko dira, Lege honetan bildutako aginduak aplikatu behar zaizkiela adierazten den kasuetan izan ezik.

p) Ondasun higiezin, balio negoziagarri eta jabetza ukiezinei buruzko salerosketako, dohaintzako, trukaketako eta errentamenduko kontratuak eta parekoak diren gainerako negozio juridikoak, betiere haien xedea ordenagailu-programak ez badira, horiek hornidura- edo zerbitzu-kontratuetatik hartuko baitira, eta, beraz, kontratu pribatuak izango dira beti eta ondare-legediaren baitan arautuko dira. Kontratu horietan ezin izango da Aurretiko Tituluko II. Kapituluko 1. Idatz-zatian araututako kontratu tipikoen berezko prestaziorik bildu, prestazio horien balio zenbatetsia negozioaren guztizko zenbatekoaren 100eko 50 baino handiagoa bada, edo ondare-kontratuaren ohiko prestazioarekin 25. artikuluan aurreikusitako moduko lotura eta osagarritasun-harremanik ez badute. Bi kasu horietan, prestazio horiek bereiz kontratatuko dira, Lege honetan ezarritakoari jarraiki.

q) Estatuako Ikerketa Erakunde Publikoek eta Autonomia Erkidegoetako pareko Erakundeek egindako zerbitzu- eta hornidura-kontratuak, betiere ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko proiektuak edo zerbitzu teknikoetako proiektuak gauzatzeko beharrezkoak diren prestazio edo produktuei buruzkoak badira, eta horien emaitzen aurkezpena eta lorpena trafiko juridikoan txerta litezkeen itzulkin zientifiko, teknologiko edo industrialekiko lotura dutenean, baldin eta proiektu horiek lehiaketa-prozesuen bidez esleitu bazaie dagokion Erakundeko ikerketa-taldeei.

r) Kontratazio-organoak osorik ordaintzen dituen ikerketa- eta garapen-kontratuak, betiere kontratazio-organoaren eta enpresa esleipendunen artean partekatzen badira merkatuko aukerak gaindituko dituzten soluzioak eskuratzeko beharrezkoa den ikerketa zientifiko eta

teknikoaren arriskuak eta etekinak. Horrelako kontratuak esleitzean, publizitate, lehia, gardentasun, konfidentzialtasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioak errespetatzen direla eta eskaintza ekonomiko abantailatsuen aukerak dela ziurtatuko da.

2. Aurreko idatz-zatian adierazitako kontratu, negozio eta harreman juridikoak beren arau berezien arabera arautuko dira; Lege honetan bildutako printzipioak, berriz, sortzen diren zalantza eta hutsuneak konpontzeko aplikatuko dira.

## II. ERANSKINA

### **13. artikulua. Mugatze orokorra**

2. Aurreko idatz-zatian adierazitakoa gorabehera, honako kontratu hauek ez dira erregulazio harmonizatuaren mendekotzat hartuko, beren balio zenbatetsia edozein izanik ere:

a) Irrati-difusioko erakundeek irratiz emateko programak erosi, garatu, produzitu edo koproduzitzera bideratutako kontratuak, baita irradi-difusioko denborari buruzkoak ere.

b) Kontratazio Organoak guztiz ordaindutako ikerketa- eta garapen-kontratuak, betiere horien emaitzak Organo horrek soilik bere jardueran erabiltzeko ez badira.

e) Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 346. artikulua esparruan barne hartzen diren hitzarmenak -defentsaren sektorean erabakitzen direnak.

d) Sekretupekotzat edo isilpekotzat hartzen direnak, edo indarrean dagoen legediaren arabera gauzatzeko segurtasun-neurri bereziak behar dituztenak, edota Estatuko segurtasunerako funtsezko interesak babestea eskatzen dutenak.

Azken baldintza hori betetzen dela ziurtatzeko aitorpena kasu bakoitzean berariaz egin behar du kontratazio-organoari dagokion Ministerioko Sailaren titularrak, autonomia-erkidegoen eskumeneko organoak edo toki-erakundeekin kasuan-kasuan kontratua egiteko eskumena esleitu zaion organoak, Estatuko Administrazio Orokorraren, bere organismo autonomoen, erakunde kudeatzaileen, Gizarte Segurantzako zerbitzu komunak eta Estatuko gainerako erakunde publikoen esparruan. Aitorpen hori egiteko eskumena ezingo da eskuordetu, lege batek berariaz baimentzen duen kasuetan izan ezik.

e) Xede nagusitzat Kontratazio Organoei telekomunikazio-sare publikoak erabilgarri jartzeko edo ustiatzeko aukera ematea edo jendeari telekomunikazioetako zerbitzu bat edo gehiago hornitzea dutenak.

### III. ERANSKINA

DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA		<b>KONTRATAZIO ESKAERA</b>			
Eskatzailea		Arloa		Data	
<b>KONTRATAZIOAREN XEDEA ETA KONTRATU MOTA</b>					
<b>BETE BEHARREKO PREMIEN IZAERA ETA HEDAPENA</b>					
<b>KONTRATUAREN JUSTIFIKAZIOA ETA EGOKITASUNA</b>					
<b>ZEHAZTAPEN TEKNIKO INTERESGARRIAK</b>					
<b>GUTXI GORABEHERAKO PREZIOA</b>					
Arlo eskatzaileko zuzendariaren O.E.			Arlo ekonomikoko zuzendariaren O.E.		
Izena		Izena			
Data		Data			

IFK-CIF: Q20005411  
6634n VI 2009-11